



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

### **EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK**

1. Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2019. urterako .....	3
2. Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak, 2019. urterako .....	4
3. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko diru-laguntzak, 2019. urterako .....	5
4. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2019. urterako ...	6
5. Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuetan ekonomiaren garapenerako eta ekonomia-dibertsifikaziorako laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PRIBATUAK) .....	7
6. Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PUBLIKOAK) .....	9
7. 2015-2020. aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartu zen LEADER eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak.....	10
8. EAE-ko landa-eta itsasertz-ingurunea dinamizatuko duten ekitaldi sozialak egiteko laguntzak .....	12
9. ITSASPEN laguntza-programa.....	13
10. Nekazaritza-Ekoizleen Elkartek eta haien batasunak .....	15
11. Nekazaritza-Sektoreko Lanbide-Elkartek (Elkartek Programa).....	16
12. Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak.....	17
13. Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean.....	18
14. Arraza Garbien Abeltzain Elkartek.....	19
15. Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa .....	21
16. Flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko programa .....	24
17. Tokiko garapen parte-hartzailea .....	25
18. Arrantza Sektoreko Elkarte Profesionalak (Elkartek Programa) .....	27
19. Itsasoratu Programa .....	28
20. Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren bekak.....	29
21. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak .....	30
22. Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzen programa .....	32
23. Baso-bioekonomiaren alorreko proiektu berritzaileen laguntzen programa .....	34
24. Lankidetzarako laguntzak .....	35
25. Nekazaritzako elikagaien sektoreko elkarte profesionalak (Elkartek Programa) .....	36
26. Lehiatu Berria Programa.....	37
27. Lehiatu Sustapena Programa .....	39



28. Fruta eta Barazki Ekoizleen Erakundeak.....	41
29. Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB Programa .....	42
30. MAB-Ardoa Inbertsioa 2019 programa .....	43
31. Gastrobikain Programa .....	44
32. Lehiatu Ardoa Programa.....	45
33. Sendotu Programa.....	46
34. «Basque Label Harategiak» marka berrira atxikiko diren harategi tradizionalentzako laguntzak.....	47
35. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak .....	49
36. Hazitek 2019 Programa .....	51
37. Elkartek 2019 Programa .....	54
38. Emaitek Plus Programa (2019ko ekitaldia).....	56
39. Bikaintek 2019 Programa .....	58
40. Gauzatu Industria programa. Laguntza itzulgarriak oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko .....	60
41. Indartu Programa, 2019ko Agindua-Deialdia .....	62
42. Bideratu Berria Programa. 2019ko deialdia.....	64
43. 2019. urtean Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa .....	66



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2019. urterako**

## 2.- Araua

Agindua, 2019ko ekainaren 3koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita jarduera bertan behera uztea dela-eta bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntza-programa bat.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902924e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek ematen dira errepideko garraio publikoaren sektorearen arazoetako bati aurre egiteko, hain zuzen ere, garraiolari autonomoen adin handiari. Hori dela-eta, egokitzat jotzen da lan-bizitzaren zatirik handiena errepideko garraio publikoaren sektorean eman duten adineko profesionalek jarduera uztea sustatzea, eta hartarako, beharrezko baliabideak jarriko dira..

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

233.750 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2019 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura. Laguntza horiek eskatzeko 33 espediente izapidetu dira, eta haietatik 23 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 232.300 euro, eta kopurua osoa erabili da.

Aurkeztutako 33 eskabideetatik 23 onuradun egoteak esan nahi du adineko 23 garraiolarik lanbidea utzi eta jarduera-baimenari uko egin diotela. Emaitza horiek 2019rako aurrekontuen memorian 30 magnitudetan ezarritako helburuetara ez dira heltzen. Halere, 8 eskatzailek haien eskabideei uko egin ez baliote, helburua lortuzat jo genezake.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Garraiorako baimenari uko egiten dioten garraiolarien kopurua	30	23



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak, 2019. urterako**

## 2.- Araua

Agindua, 2019ko ekainaren 3koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalak eta enpresariak laguntzak emateko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902923e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko elkarte profesionalen eta enpresariaren jardura eta ekimenei laguntzeko. Helburua da erakunde horiei laguntzak emateko mekanismo bat ezartzea, uste baita elkarte profesionalak eta enpresariak gai direla sektorean dauden gabeziak betetzeko behar diren ekimenak sortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

63.750 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegokoaren 2019 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura. Zenbateko hori, aurreikusitako eskabideekin eta kopuruekin bat zetorrela jo zen.

Laguntza horiek eskatzeko 8 espediente izapidetu dira, eta haietatik 7 espedienteri (6 salgaien sektorekoak eta 1 bidaiarien sektorekoa) eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 63.750 euro, hau da, eskaintako diru-kopuru osoa. Emaitza hauek hurbildu egiten dira 2019rako aurrekontuen memorian ezarritako helburuetara (8 eskatzaile); horregatik, programak jasotako erantzuna egokitzat hartu da eta potentziala du gora egiteko. Horrenbestez, aurreikusitako egitaraua betetzen dela uste da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkarte eskatzaileen zenbatekoa	8	7



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko diru-laguntzak, 2019. urterako**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 3koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-programa bat ezartzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatea kudeatzeko eta ingurumena kudeatzeko sistemak jartzeko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902922e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauek ematen dira kalitatearen kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien garraio publikoko sektorean. Laguntza hauekin lortu nahi da zerbitzua segurtasun, kalitate, gardentasun eta bizkortasun handiagoaz ematea; alde batetik, positiboa da garraio-enpresarentzat, bere egitura modernizatzeko aukera emango diolako, bezeroentzako kalitateko zerbitzuak kudeatu eta ematen dituen sistema baten bitartez; eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

40.000,00 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2019 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 6 espediente izapidetu dira, eta haietatik onuradun bati bakarrik eman zaio laguntza (beste bi onuradunek eskubideari uko egin ondoren). Diru-laguntzen zenbatekoa: 912,50 euro. Nahiz eta eskaeren kopuruan ez den gorabehera handirik ikusten (6 aurreko ekitaldiko 7ren aurka), ikusten da beherakada nabarmena egon dela bai erakunde onuradunen zenbaketan, bai gauzatutako guztizko zenbatekoan. Egia bada ere laguntzak 3 eskabideri eman zitzaizkiela (2018a baino gutxiago), diru-laguntzaren xede zen proiektua ez egiteagatik aurkeztu ziren bi uko egiteek azken emaitza murrizten amaitu zuten.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Egiaztatuko edo horren prozesuan dauden enpresen zenbatekoa	15	1



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2019. urterako**

## 2.- Araua

Agindua, 2019ko ekainaren 3koa, Ekonomiaren garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-programa bat ezartzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak bultzatzeko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902921e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko. Lortu nahi den helburua da zerbitzua emateko garaian segurtasuna, kalitatea, gardentasuna eta bizkortasuna handitzea; alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, zerbitzua azken belaunaldiko produktuekin modernizatzeko aukera emango diolako, eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

50.000 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2019 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 9 espediente izapidetu dira, eta haietatik 6 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 22.333,21 euro.

Programaren eta helburuen burutzapen- eta betetze-mailari dagokionez, 9 eskaera eta 6 onuradunetatik lortutako emaitzak (8 eskaera onartu ziren, baina biei uko egin zieten) 2018ko ekitaldikoaren antzekoak dira, eta aldendu egin dira 2019rako 15 eskabidetan ezarritako helburuetatik.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunen zenbatekoa	15	6



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuetan ekonomiaren garapenerako eta ekonomia-dibertsifikaziorako laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PRIBATUAK)**

## 2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2018ko abenduaren 12ko Agindua.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia: 2018ko abenduaren 31ko EHAA, 250 zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806412e.pdf>

Pertsona onuradunei emandako dirulaguntzen ebazpenaren argitaratzea: 2019ko urriaren 16ko EHAA, 197 zk. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/10/1904778e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu horren bidez hauetarako laguntzak eman dira:

- Nekazaritza-sektorearekin lotuta ez dauden jarduerak, baina sektore hori dibertsifikatzen dutenak.
- Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta garapena eta autonomoetan alta emandako pertsona fisikoek garatutako proiektuak.
- Enpleguaren sorrera garbia.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

126 eskari aurkeztu dira guztira eta horietako 27 proiekturi eman zaio baiezkotzea erantzuna.

Deialdi horren babesean, 2.075.000 euroko aurrekontu-zuzkidura egin eta honako funts hauek hitzartu dira, laguntza motaren arabera banatuta:

Laguntza mota	Aurreikusiak / deituak			Konprometituak		
	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA
Dibertsifikazio ekonomikoa, enpresen eraketa eta garapena	500.000	1.375.000	1.875.000	582.300	1.457.346	2.039.646
Enpleguaren sorrera garbia	100.000	100.000	200.000	17.623	17.622	35.245
<b>GUZTIRA</b>	<b>600.000</b>	<b>1.475.000</b>	<b>2.075.000</b>	<b>599.923</b>	<b>1.474.968</b>	<b>2.074.891</b>



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

	Aurreikusia	Burutua
Nekazaritzakoak eta arrantzakoak ez diren jardueretarantz dibertsifikatzeko proiektuak. Lagundutako proiektu kopurua	2	2
Mikroenpresak zein enpresa txiki eta ertainak eratu eta garatzeko proiektuak. Lagundutako proiektu kopurua	25	21
Enpleguen sorrera garbirako proiektuak. Hitzartutako enplegu kopurua	16	7
Lagundutako proiektu kopurua	35	4





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PUBLIKOAK)**

## 2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2018ko abenduaren 12ko Agindua.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia: 2018ko abenduaren 31ko EHAA, 250 zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806413e.pdf>

Pertsona onuradunei emandako dirulaguntzen ebazpenaren argitaratzea: 2019ko urriaren 16ko EHAA, 197 zk.: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/10/1904777e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu horren bidez hauetarako laguntzak eman dira:

- Landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko azpiegiturak hornitzeko
- Turismoarekin lotutako kultura- eta natura-ondareko inbertsio-proiektuak, eta jendeak erabiltzeko aisia-, turismo- eta informazio-azpiegituren proiektuak bultzatzeko

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

76 eskari aurkeztu dira guztira eta horietako 52 proiekturi eman zaio baiezko erantzuna.

Deialdi horren babesean, 5.000.000 euroko aurrekontu zuzkidura egin eta honako funts hauek hitzartu dira, laguntza motaren arabera banatuta:

Laguntza mota	Aurreikusiak / deituak			Konprometituak		
	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA
Bizi-kalitatea hobetzea eta turismoari lotutako kultura- eta natura-ondarea	1.900.000	3.100.000	5.000.000	1.264.691	2.063.442	3.328.133

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

	Aurreikusia	Burutzeko
Bizi kalitatearen hobekuntzarako eta turismoari lotutako kultura- eta natura- ondarrerako Llgundutako proiektu kopurua	67	72



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2015-2020. aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartu zen LEADER eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2019ko abuztuaren 9ko Agindua.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia: 2019ko abuztuaren 22ko EHAA, 158 zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/08/1903973e.pdf>

Emate-ebazpena: argitaratu gabe

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu horren bidez hauetarako laguntzak eman dira:

- Ekintzailtzarako laguntzak.
- Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko laguntzak.
- Besteren kontura kontratazko laguntzak.
- Udalerrietako oinarritzko azpiegitura eta zerbitzuak egin eta berritzeko laguntzak.
- Etxebizitzarako laguntzak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

298 eskari aurkeztu dira guztira eta horietako 169 proiekturi eman zaio baieztoko erantzuna.

Aipaturiko deialdiaren babesean, aurrekontu orokorretan 7.190.000 euro dituen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren esparruan Batzordeak onartutako finantziario osagarri nazionalaren kargura, laguntza motari dagokionez, ondorengo zenbatekoak konprometitu dira:

Laguntza mota	Aurreikusiak / deituak			Konprometituak		
	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA
II. Kap. Ekintzailtzarako laguntzak	190.000	190.000	380.000	95.182	95.182	190.364
III. Kap. - Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioak	925.000	1.550.240	2.475.240	897.909	1.528.872	2.426.781
VI. Kap. - Besteren konturako kontratazioak	10.000	110.000	120.000	23.875	23.875	47.750
V. Kap. – Udalerrietako oinarritzko azpiegiturak eta zerbitzuak egin eta berritzeko inbertsioak.	1.475.000	2.472.100	3.947.100	1.594.535	2.693.397	4.287.932
VI. Kap. – Etxebizitzak.	100.000	167.600	267.600	86.853	147.886	234.739
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.700.000</b>	<b>4.490.000</b>	<b>7.190.000</b>	<b>2.698.354</b>	<b>4.489.212</b>	<b>7.187.566</b>



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

	<b>Aurreikusia</b>	<b>Burutuao</b>
Konprometitutako lanpostu-kopurua (IV kapituluaren neurriak)	<b>45</b>	<b>51</b>
Lagundutako proiektu-kopurua (VII kapituluaren neurriak)	<b>105</b>	<b>138</b>



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**EAE-ko landa-eta itsasertz-ingurunea dinamizatuko duten ekitaldi sozialak egiteko laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 4koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, EAeko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzekeo gizarte-ekitaldietarako 2018. urterako laguntzak iragartzen dituen araubidearen barnean..

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1903104e.pdf>

Emate-erabakia: [argitaratu gabe](#)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa bat da, eta nekazaritza-jardueratik kanpo Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta itsasertz-ingurunean inpaktu dinamizatzailea izango duten ekitaldi sozialak sustatzeko xedea dauka. Proiektuak baloratzeko irizpideen barruan, ekitaldien agertoki izango den eremuaren landa- eta itsasertz-maila eta erakunde sustatzailearen eskarmentua ez ezik, jardueraren inpaktuaren inguruko zenbait irizpide ere jaso dira. Garrantzi berezia ematen zaie laguntzaren balizko hartzaileei, tokiko agenteen inplikazioari, ondorioak izango dituen eremuari, genero-ikuspegiari eta hedapen-ekintzei. Laguntzak esleitzeko, ondoko konkurrentzia-prozedura erabiliko da. Horrek esan nahi du eskaerak aurkezten diren hurrenkera berean aztertu eta izapidetuko direla espedienteak, eta eskaerak behar bezala formulatzen eta betetzen diren neurrian eta hurrenkeran ebatziko direla horiek.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

59 eskaera jaso ziren, eta horietatik 33 izan zuten aldeko ebazpena. Onuradunei emandako laguntzaren guztizko zenbatekoa 101.295,12 eurokoa izan zen Kopuru hori laguntza horietarako aurrekontuaren% 50 baino apur bat gehiago da.

Laguntza horien inpaktu soziala tamainakoa izan dela uste dugu, baina inpaktu handiagoa izan behar du. Diru-laguntzen programa ezarri ahala eraginkorragoa izatea espero da. Hala ere, argi dago, halaber, egokitzapena behar dela balorazio-irizpide objektiboetan eta laguntzen gehieneko zenbatekoetan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako jarduketa kopurua:.....	20.....	33



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**ITSASPEN laguntza-programa**

## 2.- Araua

Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak arautzen dituen otsailaren 21eko 22/2012 Dekretua.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2019ko urtarrillaren 21eko Agindua, 2019 ekitaldiko laguntzetarako deialdia egiten duena, arestian aipatutako otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babespean.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Araua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/03/1201055e.pdf>

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/01/1900384e.pdf>

Emate-erabakia: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1904779e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko diru-laguntzak ematea, eremuotako oinarritzko zerbitzuak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta kostaldeko herriak biziberritzen, berritzen eta garatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

19 eskari aurkeztu dira guztira, eta, haietatik, 7 proiekturi eman zaio baiezko erantzuna, 2019ko urtarrillaren 21eko Aginduaren babespean.

500.000 euroko aurrekontu zuzkidura egin eta honako funts hauek hitzartu dira, laguntza motaren arabera banatuta:

Laguntza mota	Aurreikusiak / deituak			Konprometituak		
	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA	2019ko funtsak	2020ko funtsak	GUZTIRA
Itsasertzeko ekonomia eta biztanleentzako oinarritzko zerbitzuak	153.000	229.500	220.042	94.418	125.624	220.042
Itsasertzeko ondarea kontserbatzea eta hobetzea	47.000	70.500	104.723	104.723	0	104.723
<b>GUZTIRA</b>	<b>200.000</b>	<b>300.000</b>	<b>324.765</b>	<b>199.141</b>	<b>125.624</b>	<b>324.765</b>



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

	Aurreikusia	Burutua
Itsasertzeko biztanleen bizimodua hobetzen laguntzen duten lagundutako proiektuen kopurua	8	5
Turismoari lotutako kultura- eta natura-ondareari buruzko lagundutako proiektuen kopurua	3	2



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nekazaritza-Ekoizleen Elkartek eta haien batasunak**

## 2.- Araua

10/2018 Dekretua, urtarrilaren 30koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzkoa.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak 2019ko urriaren 1an emandako Aginduaren bidez deitua izan da 2019. urterako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904776e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/10/1904776a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da egituratze produktiboa eta komertziala lortzea, Nekazaritzako Ekoizleen Elkarteen bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lehen aipatutako Dekretuaren bidez, NEEak Nekazari-Ekoizle elkarteak –erregistratzeko/ onartzeko arauadia ezarri zen; 2019an zehar 6 taldek jaso dute laguntza, guztira 461.205,00 €-tan, funts propioen kontura. Halaber, Landa Garapenarako Europako Nekazaritza Funtsak osatu du kopuru hori, 38.795,00 €-tan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Nekazaritzako ekoizleen elkarte berriak	0	1
Adierazlea Lagundutako Nekazaritzako ekoizleen elkarteak	5	6



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nekazaritza-Sektoreko Lanbide-Elkartek (Elkartek Programa)**

## 2.- Araua

233/2011 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariaiei zuzendutako laguntzei buruzkoa, 2019ko ekainaren 17ko Aginduaren bidez deituak 2019. urterako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2011/12/1105926a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903107e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1903107a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritzako elkarte profesionalen eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzen dira, haien interesen ordezkapena eta defentsa bideratzeko, eta nekazaritza sektoreko jarduerak betetzeko baldintzak hobetzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntzen ildo hau urte bat baino gehiagotan izan da indarrean, eta egiaztatu da finkatu egin dela nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreetako egitura jakin batzuetan. Nagusiki, elkarte profesionalek egindako lanaren bidez gertatu da hori. Elkarte horiek lankidetzan estuan dihardute aspaldian Sailarekin azken horrek bultzatzen dituen jarduera jakinak aurrera eramateko, eta laguntza handia ematen dute sektore jakinetan krisi-garaian hartu behar diren neurri garrantzitsuak ezartzeko.

Guztira 18 espediente izapidetu dira 2019. urtean Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan, eta 109.183,21 € bideratu dira horretarako.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkartek	11	8





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak**

## 2.- Araua

Agindua, 2018ko abenduaren 18koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2018ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806414a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806414e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/02/2000905a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2000905e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin egiten duten elkarrizketa soziala bideratzeko lanak laguntzen dira. Elkarrizketarako sortu diren foroetan gauzatzen dira lan horiek, euskal nekazaritza-sektoreari eragiten dioten gaiak lantzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Euskal Landa Ingurunea Garatzeko 1997-2000 Euskal Plana onartu ondoren, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarrizketan aritzeko foro batzuk sortu dira. Foro horiek sortzeko baldintza izan da izaera sindikala duten nekazaritza-elkarte profesionalak laguntzak emateko irizpideak berritzea. Hori horrela, administrazioarekin egiten dituzten elkarrizketa-jarduerak osatzen dute, elkarte horiei laguntza emateko aintzat hartu behar den irizpideetako bat, haien bertaratzea eta partaidetza bultzatzeko.

Aurten, sektorean dauden 5 elkarte profesionalak dagozkien espedienteak izapidetu dira, eta laguntzen zenbatekoa 241.000,00 €-koa izan da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erakundeak	5	5



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 20koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena. Haren bitartez, nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboaren dibertsifikaziorako nekazaritza eta ingurumeneko diru-laguntzaren 2019 deialdia egiten da. Teknika horiek EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan aurreikusita daude.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/1903224a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903224e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hori baliatuz, eta neurri honen bitartez, laborantza estentsiboen dibertsifikazioa sustatu nahi da, nekazaritza-produkzio jasangarriko teknikak erabilia, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan onartutakoaren eta jasotakoaren arabera. Neurri honen helburuak dira, batetik, baliabide naturalen jasangarritasuna eta arrazoizko aprobetxamendua sustatzea eta, bestetik, ingurua babestea. Horretarako, ustiapenen titularren errentak mantendu edo hobetuko dira.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aipatutako aginduaren bidez, 2019. urterako, laborantza estentsiboen dibertsifikazioa babesteko asmoz, laugarren ekitaldirako deialdia egin zen, 155 ustiapenen gaineko espedienteak izapidetu ziren, eta laguntzen zenbateko osoa 1.216.535,61€-koa izan zen. (47 elkarte, 99 gizon eta 9 emakume)

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	150	155



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Arraza Garbien Abeltzain Elkarteak**

## 2.- Araua

240/2017 DEKRETUA, urriaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzain-elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen duena. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak 2018ko abenduaren 3an emandako Aginduaren bidez deitua izan da 2019. urterako

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/12/1806048a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806048e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1902757a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902757e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Liburu genealogikoak kudeatzen dituzten abeltzain-elkarteek ekintzak garatu behar dituzte beren hazkuntza-programak martxan jartzeko, arraza zabaltzeko eta haien kontserbazioa edo animalia ugaltzaile onenen hautaketa ziurtatzeko. Azkenik, ustiategiak modernizatzen saiatzen da, liburu genealogikoak kudeatuz, hautaketa-programak gauzatu eta errendimenduak kontrolatuz. Baliabide genetikoak kontserbatzea helburu izanik, aldi berean animaliak eta haien produktuak merkaturatzen lagundu nahi dugu, ekoizpenean eraginkortasun handiagoa eta abeltzaintzako ustiategien errentagarritasun handiagoa lortzea ahalbidetuz. Era berean, laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen eta mendi-nekazaritzaren garapena bultzatzeko balio dute.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

10 elkartek jaso dute dirulaguntza, horietako bat sortu berria. Laguntza osotik (350.000 euro), 326.365 euro baino ez ziren justifikatu. Elkarte horiek 878 ustiategi biltzen dituzte, 15.685 UGM (26.236 abelburu eta 895 erlauntza).

## Eragina gizartean:

- Genealogien ezagutzan bilakaera positibo argia dago. Laguntza-lerro horren eragina agerikoa da, odol-laginak hartzea eta genotipatzearen bidez aztertzea ahalbidetzen baitu. Tresna horrek aukera ematen digu filiazio-kontrolak egiteko, genealogiak berresteko eta kontserbazio-programetan azkarrago aurrera egiteko.
- Laguntza horri esker, liburu genealogikoen datuak kudeatzeko aplikazio informatikoak hobetu dituzte elkarteek, eta horrek eragiten du erabakiak hartu ahal izatea zenbait ustiategitan hazitarako abereen erabilera hautatzeko edo baztertzeke orduan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

- Liburu genealogikoen kopurua: 10
- Diruz lagundutako animalien hautaketa-zentroak: 2
- Euskadiko lehiaketen kopurua: 7
- Idatzitako eta garatutako hazkuntza-programen kopurua: 10
- 2019an genotipatutako animalien kopurua: 5.227 eme ugaltzaile



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko urriaren 16koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaren eta akuikulturaren sektorerako 2019ko dirulaguntzetarako deialdiaren oinarriak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

[https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/10/16/\(2\)/dof/eus/html/x59-confich/eu/](https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/10/16/(2)/dof/eus/html/x59-confich/eu/)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2016rako laguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko Europako Itsas eta Arrantza Funtzari buruzko 508/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) aurreikusten dira.

Arau-esparru horri esker, honako eremu hauetako neurriak babestu ahal izango dira, besteak beste:

I) Arrantza jasangarria, honako laguntza-lerro hauek izango dituenak: Berrikuntza; aholkularitza-zerbitzuak; ikerlarien eta arrantzaleen arteko elkarteak; giza kapitalaren sustapena; gizarte-elkarriketa eta enpleguaren sorrera; arrantzale gazteentzako hasierako laguntza; arrantza-ontzietako edo banako ekipoetako inbertsioetako segurtasuna eta osasuna; arrantzak itsas ingurunean duen inpaktua mugatzea eta arrantza espezieen babesera egokitzea; itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioarekin lotutako berrikuntza; itsas ekosistemak eta biodibertsitatea babestea eta berreskuratzea, eta arrantza-jarduera jasangarrien esparruko konpentsazio-erregimenak; ontziko inbertsioak, kontu-ikuskapenak eta azterketa energetikoak; eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea; balio erantsia, produktuen kalitatea eta nahi gabe hartutako harrapakinaren erabilera; arrantza-portuak, ontziratze-tokiak, lonjak eta ainguralekuak.

II) Ekoizpen- eta merkaturatze-planak eta -neurriak, honako laguntza-lerro hauek barne hartuz: Ekoizpen- eta merkaturatze-planak eta -neurriak; eta merkaturatze-neurriak.

III) Akuikultura jasangarria. Berrikuntza, Akuikulturako inbertsio produktiboak: ekoizpena dibertsifikatzea, instalazioak hobetzea eta modernizatzea, produktuen kalitatea hobetzea, putzuak edo urmaelak leheneratzea. Akuikulturako inbertsio produktiboak: baliabideen efizientzia, uren eta kimikoen erabilera gutxitzea, birziklatzeko sistemak. Akuikulturako inbertsio produktiboak: efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriaren erabilera areagotzea. Akuikultura-ustategietarako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak. Giza kapitala eta sareko lana sustatzea. Akuikultura-ekoizpeneko eremuen ahalmena handitzea. Akuikultura jasangarria lantzen duten akuikultura-enpresak sustatzea. Abereen osasunari eta ongizateari buruzko neurriak.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

122 proiektu onartu dira eta onartutako laguntzen dirukopurua 7.898.909,00 € izan da. Hona hemen laguntzen dirukopuruak lerroz lerro:

- 112 - Arrantzak itsas ingurunean duen inpaktua mugatzea: (5 proiektu onartuta); 93.318,00 €
- 113 Itsasoko baliabideen kontserbazioarekin lotutako berrikuntza: (13 proiektu onartuta); 889.320,00 €
- 144 - Segurtasuna eta osasuna: (44 proiektu onartuta); 1.411.074,00 €
- 148 - Balio erantsia eta produktuen kalitatea: (19 proiektu onartuta); 1.204.558,00 €
- 149 – Arrantza portuak: (4 proiektu onartuta); 92.053,00
- 151 – Berrikuntza: (4 proiektu onartuta); 190.063,00 €
- 211 – Akuiculturan berrikuntza: (8 proiektu onartuta); 890.434,00 €
- 221 - Akuikulturako inbertsio produktiboak: (proiektu bat onartuta); 34.155,00 €
- 232 - Akuikulturako inbertsio produktiboak: baliabideen efizientzia (proiektu bat onartuta); 23.867,00 €
- 243 - Osasun-neurriak eta animalia-ongizatea (proiektu bat onartuta); 5.144,03 €
- 511 - Ekoizpen- eta merkaturatze-planak: (3 proiektu onartuta); 640.568,00 €
- 513 - Merkaturatze-neurriak: (19 proiektu onartuta); 2.424.348,00 €

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1. helburua: Arrantza-flota egokitzea 1. ekintza egitura-politika.		
2. adierazlea Itsasoan eta lurtean segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzei laguntzea (jarduketa kopurua)	20	48
2. ekintza: Ikerketa eta berrikuntza arrantza-flotaren lehiakortasunerako.		
1. adierazlea Berrikuntzako komiteak sustatzea flota jasangarritasunerantz eraldatzeko (jarduketa kopurua).	1	1
2. adierazlea I+G+B garatzea flota bideragarri eta lehiakor bat lortzeko, arrantza-praktika jasangarriekin.		
2.1. adierazlea Efizientzia energetikoa optimizatzea (jarduketa kopurua).	5	1
2.2. adierazlea Hautagarritasuna hobetzea eta inpaktua gutxitzea ingurumenean (jarduketa kopurua).	5	5
2.3. adierazlea Jardueraren eraginkortasuna hobetzea (efizientzia, segurtasuna, kalitatea, etab.) (jarduketa kopurua).	20	12
3. adierazlea Itsasoan segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzak laguntzea (jarduketa kopurua).	20	44
2. helburua: Arrantza-sektorearen lehiakortasuna handitzea.		
3. ekintza Arrantza-sektoreko marketinero baterako kanpainak nahiz kudeaketa diseinatzea eta egitea.		



1. adierazlea Euskal arrantza-produktuen ziurtagiria eta horien balioa sustatzea (jarduketa kopurua).	3	2
2. adierazlea Ziurtagiri komuna kudeatzeko proiektuak sustatzea portuetan (proiektu kopurua).	1	0
3. adierazlea Marka bat garatzen laguntzea (proiektu kopurua).	1	0
4. adierazlea Euskal arrantza-produktuen ziurtagiriak/ekoziurtagiriak sustatzea (ziurtagiri kopurua).	1	0
3. helburua: Akuikultura espezializatua eta kalitatezkoa.	1	
1. adierazlea Akuikulturako inbertsio produktiboak.		2
2. adierazlea Akuikulturan jakintza teknikoen eta teknologia aurreratuaren sorrera bultzatuko da, arrantzaren eta nekazaritzaren sektoreak dibertsifikatzeko.	1	8
3. adierazlea Jakintza eta neurriak garatzea, kontrol zoosanitariorako eta animalien ongizaterako.	1	0
4. adierazlea EAEko akuikulturarako espezie berrien, ekoizpeneko sistemen nahiz ekipamenduen eta akuikulturako produktuen elikadura hobetzearen inguruko ezagutza garatzea sustatzea.	1	1



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 24koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez 2019ko dirulaguntzetarako deialdia egiten baita, Kantauri itsasoaren ipar-mendebaldean tresna txikiko arrantzaren eroldako artisau-flotari ezarritako atsedeen biologikoaren eraginpean dagoen eta egoitza-portua Euskal Autonomia Erkidegoan duen flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

[https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/06/24/\(2x59-confich/eu/](https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/06/24/(2x59-confich/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2016rako laguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko Europako Itsas eta Arrantza Funtzari buruzko 508/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) aurreikusten dira.

Arau-esparru horri esker, honako eremu hauetako neurriak babestu ahal izango dira, besteak beste: arrantza-jarduerak aldi baterako geldiaraztea, tresna txikiko arrantzaren eroldako artisau-flotaren atsedeen biologikoa ezarritik.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

39 itsasontzi eta 77 tripulante (guzti hauek gizonezkoak) parte hartu dute neurri honetan, eta onartutako laguntzen dirukopurua 260.481,00€ izan da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1.helburua: Arrantza-flota egokitzea		
1. ekintza: arrantza-flotaren egitura.		
1. adierazlea Arrantza-ontzien gaitasuna kudeatzea, doitzea eta erregulatzea: Arrantza-unitateak aldi baterako geldiaraztea (arrantza-unitateak)		39
2. adierazlea Tripulanteen kopurua		77
Gizonezkoak		77
Emakumezkoak		0





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Tokiko garapen parte-hartzailea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 3koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, 2019ko ekitaldirako partaidetzako toki-garapenaren estrategiaren (PTGE) babespeko proiektuetarako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituena. Estrategia hori arrantza-sektoreko toki-ekintzako taldeak (ATET) onetsi du, arrantza-eremuen garapen jasangarrirako, Europako 2014-2020 aldirako Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsaren (IAEF) esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

[https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/07/03/\(8\)/dof/eus/html/x59-confich/eu/](https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/07/03/(8)/dof/eus/html/x59-confich/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da Itsas Garapen Elkarte Tokiko Ekintza Taldeari (aurrerantzean, ATET) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak onartutako partaidetzako toki-garapenaren estrategien (PTGE) babespean gauzatutako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egitea.

Gainera, diruz lagundu daitezkeen proiektu eta jarduketek jarraian zehazten diren helburu hauetakoren bat lortzen lagundu beharko dute:

- a) Arrantzako produktuen balioa handitzea, enplegua sortzea, gazteak erakartzea eta berrikuntza sustatzea arrantzaren eta akuikulturaren produktuen hornidura-katearen fase guztietan.
- b) Hauetan laguntzea: arrantza-sektorearen dibertsifikazioa merkataritza-arrantzako sektorean edo hortik kanpo, ikaskuntza iraunkorra eta arrantza- eta akuikultura-guneetan enplegua sortzea.
- c) Tokiko ekonomiaren dibertsifikazioan laguntzea, lehentasunez arrantza eta itsasoa baliabideei atxikitako jarduera ekonomiko berrietarantz.
- d) Arrantza-guneetako arrantza, akuikultura eta itsasoaren kultura-ondarea sustatzea.
- e) e) Arrantza-komunitateen papera tokiko garapenean eta arrantza-baliabideen tokiko itsas-jardueren gobernamentua indartzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, onartu dira 94 proiektu eta lerroz lerro honako proiektu hauek: El nº total de ayudas aprobadas ha sido de 78, y su desglose por líneas de ayuda es:

- Ekoizpeneko inbertsioak: 52
- Enplegua sortzeko inbertsioak: 31 (Gizonezkoak 19 eta emakumezkoak 12)
- Ekoizpenekoak ez diren inbertsioak: 11



Egindako gastuari begira, onartutako laguntzen dirukopura 2.642.756,64 eurokoa izan da, eta hona hemen laguntzaren dirukopuruen banaketa:

- Ekoizpeneko inbertsioak: 1.823.561,00€
- Enplegua sortzeko inbertsioak: 200.000,00 €
- Ekoizpenekoak ez diren inbertsioak: 208.928,00 €

Programa hori sortu zen akuikultura eta arrantza sektorearen bideragarritasuna bermatzeko; eta, enplegukopurua igotzeko eta enplegua sortzeko; horretarako, arrantza-produktuek duten balioa areagotuko da, eta tokiko ekonomia jarduera ekonomiko berrietarantz dibertsifikatuko da. Horien artean daude, «hazkunde urdinak» eta, orokorrean, itsas sektoreek eskaintzen dituzten jarduerak.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1. Ekintza Sektoreari laguntzea eta haren jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea		
1. adierazlea Sektorearen irudia hobetzea (ekintza kopurua).	1	2
2. adierazlea Arrantza-produktuak sustatzea, bultzatzea eta merkaturatzea (jarduketa kopurua).	4	8
3. adierazlea Gaitasun profesionala eta aukera-berdintasuna sustatzea arrantzaren sektorean.	1	1
4. adierazlea Emakumea arrantzaren sektorean sartzeko baldintzak hobetzea (jarduketa kopurua).	1	2
5. adierazlea Aukera-berdintasuna sustatzea arrantzaren sektorean (jarduketa kopurua).	1	1
6. adierazlea. Arrantza-sektorea dibertsifikatzea, sektoreko know-how-arekin zerikusia duten jarduera berritzaileen bidez (jarduketa kopurua)	1	2
2. ekintza: Arrantza-herrien jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea		
1. adierazlea Dibertsifikazioa, itsasoko eta arrantzako baliabideekin zerikusia duten jarduera berriak ezarrita (proiektu kopurua).	4	2
2. adierazlea Itsasoko eta arrantzako ondarearen baliabideak berreskuratzea, kontserbatzea, nabarmentzea eta horiek aprobeztatzea (proiektu kopurua).	1	6
3. adierazlea Itsasoari lotutako ekimen turistikoak sortzea eta horiek modu jasangarrian garatzea (proiektu kopurua).	2	11



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Arrantza Sektoreko Elkarte Profesionalak (Elkarteak Programa)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako 2019ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia («Elkarteak» Programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

[https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/06/17/\(1\)/dof/eus/html/x59-confich/eu/](https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/o/2019/06/17/(1)/dof/eus/html/x59-confich/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantza sektoreko elkarte profesional eta enpresen jarduerak eta ekimenak sustatzea, euren interesak ordezkatu eta babestu eta arrantza sektoreko jarduerak garatzeko baldintzak hobetzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza lerro hori ekitaldi batzuetan aplikatu ostean, arrantza sektorearen egiturak sendotzen dira erakunde profesionalek egindako lanari esker batez ere. Erakunde horiek ari dira lankidetzan sailarekin berorrek bultzatutako zenbait jardueratan, baita sektore batzuen krisialdian egin beharreko neurri garrantzitsuetan ere. 2019ko ekitaldian 5 espediente izapidetu ziren, hau da, 178.969 € laguntzetan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
ELKARTEAK programari heldutako elkarteak.	8	5



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Itsasoratu Programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta, arrantza-enpresei zuzenduta, minimis-araubidean jasotako 2019rako laguntzen deialdia egiten, ikasleek arrantza-ontzietan prestakuntza-egonaldiak egiteko aukera izan dezaten, Itsasoratu programa

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.legegunea.euskadi.eus/agindua/agindua-2019ko-uztailaren-30ekoa-ekonomiaren-garapeneko-eta-azpiegituretako-sailburuarena-zeinaren-bidez-oinarri-arautzaileak-ezartzen-baitira-eta-arrantza-enpresei-zuzenduta-minimis-araubidean-jasotako-2019rako-laguntzen-deialdia-egiten-ikasleek-arrantz/x59-contfich/eu/>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantza-enpresei zuzendutako programa da, itsas arrantzako prestakuntza-zikloetako ikasleek prestakuntza-egonaldiak egin ahal izateko arrantza-ontzietan.

helburua da prestakuntza praktikoa sustatzea arrantza-sektorearen errealitatean; hori dela eta, erraztu egingo da arrantzako ontzi-enpresek itsas arrantzako prestakuntza-zikloetako ikasleak ontziratzea, ontziratze-aldi bakoitzean sortuko dituzten gastuetarako laguntza ekonomikoa emanaz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Bigarren edizio honetan, 16 gaztek (16 gizon eta emakume bat bera ere) eta 14 itsasontzik parte hartu dute, bai lan tokietan prestakuntza praktiketan bai atun kanpainan udako praktiketan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Ikasleen kopurua	15	16



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren beka**

## 2.- Araua

Agindua, 2019ko apirilaren 4koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez beka-deialdia egiten baita nautika- eta arrantza-arloko ikasketak egiteko 2018-2019 ikasturtean honako ikastetxe hauetan: Blas Lezo - Pasaiako Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskolan, eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://opendata.euskadi.eus/katalogoa/-/agindua/agindua-2019ko-apirilaren-4koa-ekonomiaren-garapeneko-eta-azpiegituretako-sailburuarena-zeinaren-bidez-beka-deialdia-egiten-baita-nautika-eta-arrantza-arloko-ikasketak-egiteko-2018-2019-ikasturtean-honako-ikastetxe-hauetan-blas-lezo-pasaiako-itsas-arrant/>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea. Horregatik, arrantza-sektorearen premia eta berezitasun sozioekonomikoei erantzuna emateko, beharrezkoa da itsas langileei eta, oro har, merkatuaren betekizunetara egokitutako prestakuntza jaso nahi duten guztiei beka emateko deialdia egitea, Europatik eskatzen denari egokitutako prestakuntza jaso dezaten aipatutako arrantza-sektorearen mesedetan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2018-2019 ikasturteari dagokionez, 123 bekadun izan dira (118 gizon eta 5 emakume).

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Bekadunen kopurua		123



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2019rako, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

2019ko uztailaren 17ko Agindua (2019ko uztailaren 31ko EHAA)

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/s19\\_0144.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/s19_0144.shtml)

Diru-laguntza emateko ebazpena 20-05-11ko EHAAn argitaratu da (87. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/05/2001955a.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan eraginkortasuna areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde iraunkorrean laguntzea eta sektore horietan integratutako agenteen arteko lankidetzaren sustatzea.

Era berean, laguntza hauekin nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreen ikerkuntza, garapena eta berrikuntza suspertu eta sustatu nahi da.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko ekitaldiko I+G jarduerak sustatzeko neurrien deialdiaren bidez, sektoretik bertatik eskatutako 52 ekimen berri lagundu zaie, hain zuzen ere atzemandako problematika garrantzitsuenei irtenbidea bilatzera bideratutako I+G proiektuak gauzatzeko. EAEko Aurrekontu Orokorren kargura diruz lagundutako guztizko zenbatekoa 2.151.971,50 € izan da.

Deialdian, 58 eskatzaile izan dira, eta horietatik 6 kanpoan utzi behar izan dira, hainbat arrazoirengatik. Inpaktu soziala oso handia da; izan ere, oso programa finkatua da eta nekazaritzako eta arrantzako enpresei eta elkarteei beren jardueran atzemandako zenbait problematikari irtenbidea emateko aukera eskaintzen die, ikerketarekin eta garapen teknologikoarekin lotutako ekintzen bidez eta betiere berrikuntza-ekintzei arreta berezia emanez.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskabide zenbakia.....	77.....	58
Laguntzen den proiektu kopurua.....	55.....	52



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzen programa**

2.- Araua

Urriaren 23ko 185/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak arautzen dituena (azaroaren 24ko 608/2009 Dekretuak aldatutakoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

2019ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituraren sailburuaren 2018ko urriaren 24ko Aginduaren bitartez egin da (2018ko azaroaren 2ko EHAA 211)

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/s19\\_0119.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/s19_0119.shtml)

Diru-laguntza emateko ebazpena 19-05-07ko EHAAn argitaratu da (84. zk.).

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/s19\\_0084.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/s19_0084.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Honako xede hau duten beka deitzea: nekazaritzako, elikadurako eta arrantzako sektoreetako arlo zientifiko-teknologikoetan eta merkatuen, marketinaren eta enpresa-antolamenduaren arloetan gazte ikertzaile eta teknologoak kualifikatzea eta espezializatzea ahalbidetzea, ikerketarekin, garapen teknologikoarekin edo berrikuntzarekin lotutako proiektua garatuz. Bi beka-programa ezartzen dira:

A) Prestakuntzan diharduten gazte ikertzaileei zuzendutako laguntza-programa.

B) Teknologo gazteei prestakuntza ematera zuzendutako laguntza-programa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programa hauen bidez 21 beka eman dira, 9 teknologo gazteei prestakuntza ematera zuzendutako laguntza-programan eta 12 prestakuntzan diharduten gazte ikertzaileei zuzendutako laguntza-programan. Guztiak EAeko nekazaritzako eta arrantzako sektorearentzat interes bereziko arlotzat hartzen diren arloetan. 63 eskatzailek hartu duten parte deialdi honetan (40 emakumek eta 23 gizonek). Neurri honen inpaktu soziala nabaria da, doktore kopurua handitzeko aukera ematen duelako, eta, era berean, langile kualifikatu eta espezializatuak enpresa-sarera sartzea ahalbidetzen delako.

Deialdi honen aurrekontua 1.681.013,20 eurokoa da (425.222,60€ kreditu-ordainketa 2019 eta 1.255.790,60€ konpromiso-kreditua 2020, 2021, 2022 y 2023rako).





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Beka berrien kopurua	22	21
Doktoretza-tesien kopurua	5	2
Teknologoen kontratu berriak	6	4
Proiektuen dibulgazio ekintzak	60	41



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Baso-bioekonomiaren alorreko proiektu berritzaileen laguntzen programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2019ko baso-bioekonomiako berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzetarako deialdiaren oinarriak

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

2019ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko ekainaren 5eko Agindua (2019ko ekainaren 25eko EHAA 119)

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/s19\\_0119.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/s19_0119.shtml)

Diru-laguntza emateko ebazpena 20-05-11ko EHAAn argitaratu da (87. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/05/2001955a.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa honen helburua da enpresek baso-bioekonomiako berrikuntza-proiektuan abian jar ditzaten sustatu eta bultzatzea. Helburu hau txertatzen da petrolioaren osteko arorako trantsizioan. Helburu hori lortzeko ekonomia zirkularrera hurbiltzea bultzatu behar da, baita ere azkar orientatu lehengai berriztagarriak eta baliabide endogenoak erabiltzerantz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Alor honetan bigarren deialdia izan da. 5 proiektu aurkeztu dira. \$ izan dira onuradunak eta 1 bazterturik aurrekonturik ez izateagatik. Aurrekontua 300.000 eurokoa izan da eta diru-kopuru osoa esleitu da.

Zalantzarik gabeko dira gizartean eragina eta programaren onura. Begi-bistan dago ingurumena gero eta narriatuago dagoela. Laguntza honek helburutzat du garapen sozioekonomiko jasagarria lortzea, natura baliabideen erabilera eraginkorraren bitartez.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	5	4
Eragindako inbertsioa (Milioi €)	2	0,43



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lankidetzarako laguntzak**

## 2.- Araua

43/2017 DEKRETUA, otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

- 43/2017 DEKRETUA EHAA 34 zk. 17-02-17

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2017/02/1700875a.shtml>

-2019ko deialdiaren agindua EHAA 150, 2019ko abuztuaren 9koa

[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/e19\\_0150.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/e19_0150.shtml)

-Diru-laguntza emateko ebazpena maiatzaren 25ean argitaratu da.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza-programaren xedea da hainbat agenteren arteko lankidetzak sustatzea, berrikuntza-proiektuak gauzatzeko.

Programa hau Europar Batasunak batera finantzatuta dago, FEADERen bitartez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko bosgarren deialdia izan da eta 41 partaidek eskabidea aurkeztu dute, 28 onuradun eta 13 ukatu izanik.

Guztira, emandako diru-kopurua 1.420.926,59 eurokoa izan da: 427.215,76€ Eusko Jaurlaritzaren funts propioei dagozkie eta 993.710,83€ FEADER funtsari.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskaera-kopurua	70	41
Laguntzen den proiektu-kopurua	50	28



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nekazaritzako elikagaien sektoreko elkarte profesionalak (Elkarteak Programa)**

## 2.- Araua

Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai, arrantza eta nekazaritzako sektoreetako enpresa- eta lanbide-elkarte zein federazioentzako laguntzak arautzen ditun azaroaren 15eko 233/2011 Dekretua (EHAA 233, 2011ko abenduaren 12a).

Ekonomiaren Garapen eta azpiegiturako sailburuaren 2019ko ekainaren 17ko Agindua

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

- Dekretua 233/2011: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

- Ekonomiaren Garapen eta azpiegiturako sailburuaren 2019ko ekainaren 17ko Agindua (EHAA 119, 2019ko ekainaren 25ekoa): [https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/e19\\_0119.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/e19_0119.shtml)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritzako elikagaien elkarte profesionalen eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzea, euren interesen ordezkartza eta defentsa egiteko, bai eta sektore horren jardun-baldintzak hobetzeko ere.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza-ildo hau hainbat ekitalditan aplikatu ondoren ikus daiteke nekazaritzako elikagaien sektoreko egiturak sendotu egin direla, nagusiki elkarte profesionalak garatu duten lanari esker. Erakunde horiek Sailarekin aktiboki lankidetzan ari dira Sailak sustatutako zenbait jardunetan, baita zenbait sektoreen krisialdietan gauzatu beharreko neurri garrantzitsuetan ere. 2019ko ekitaldian, elikagaien sektorean diharduten 14 entitate izan dira onuradun, eta laguntzetara bideratutako zenbatekoa 99.990,91 € izan da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
ELKARTEAK programari heldutako elkarteak	20	14



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehiatu Berria Programa**

## 2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2019ko ekainaren 17ko aginduaren bidez deitu ziren. Agindu horrek nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2019ko deialdiaren oinarriak onartzeko da. (LEHIATU BERRIA programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2019ko ekainaren 17ko agindua:

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/programa-lehiatu-berria-2019/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/programa-lehiatu-berria-2019/web01-tramite/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hauek dira LEHIATU BERRIA programaren edukiak:

- II. kap. – nekazaritza- eta elikagai-industriarentzako laguntzak jasotzen ditu.
- III. kap. – basogintza-industriarentzako laguntzak jasotzen ditu.
- IV. kap. – arrantza-industriarentzako laguntzak jasotzen ditu.
- V. kap. – aurreko kapituluetan koka ezin daitekeen elikagai-industriarentzako laguntzak jasotzen ditu.

Diruz lagun daitezkeen inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruaren barruan jarrita dauden edo jarriko diren establezimenduetan egin beharko dira. Gainera, inbertsioa gauzatzeko ekoizpen-establezimendu berri bat egiteko obra zibila egingo bada, inbertsioa gauzatzeko lursailak edo higiezinak eduki behar dira jabetzan, errentan edo usufruktuan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an, 144 inbertsio-proiekturi eman zaie laguntza programa honetan, egur-zerrategien (36 proiektu), nekazaritzako produktuen ekoizpenaren (96 proiektu) eta beste elikagai batzuen sektoreetan (12 proiektu). Arrantzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeari dagokienez, Europako FEMP funtsen kofinantzaketa dute, eta aurkeztu diren 27 inbertsio-proiektuetatik 25 onartu dira.

Elikagai Industrien Erregistroak 1.300 establezimendu dituela kontuan hartuta (ia erdia ardogintzaren sektoreko enpresak dira, eta ez dira programa honetan sartzen), sektorean eragin handia izango du.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Inbertsio induzitua (milioika)

Aurreikuspena: 50

Emaitza : 85

Lagundutako proiektu kopurua

Aurreikuspena: 150

Emaitza: 144



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

##### **Lehiatu Sustapena Programa**

#### 2.- Araua

Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuak, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzei buruzkoak, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du (LEHIATU SUSTAPENA programa).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: Agindua, 2019ko ekainaren 29koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren bidez araututako diru-laguntzak emateko 2019ko deialdia egiteko dena:

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/lehiatu-promocion/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/lehiatu-promocion/web01-tramite/eu/)

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

LEHIATU SUSTAPENA programak basogintza-, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak sustatzeko diru-laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du, ekintzat indibidualak eta sustapen-programak hartzen ditu diruz lagun daitezkeen ekintza gisa.

- a) Jarduera hauek hartzen dira ekintza indibidualtzat: merkataritzako azoka edo lehiaketa profesionaletan eta internazionalak erakusle gisa parte-hartzea, banako edo taldeko standetan produktuak aurkeztuz merkataritza-jarduerak egiteko; eskatzailea azoka profesionalak eta internazionalak bisitatzera joatea; Estatz kanpoko merkatuetan produktuak zuzenean aurkezteko misioak, adibidez, enpresa eskatzailearen produktuak aurkeztea eta/edo dastatzea, kanpoko merkatu horrekin merkataritza-harremanak sendotzeko eta produktuak merkatu horretara esportatzeko; alderantziko misioak, baldin eta EAera soilik mugatzen badira, hau da, atzerriko erosleak edo preskriptoreak gonbidatzea EAeko ekoizpen-plantak bisitatzera; Estatutik kanpoko merkatuetako salmenta-puntuak sustatzeko ekintza puntualak eta bereziak, hain zuzen ere, produktua publizitatzea eta dastatzea kontsumitzaileen oniritzia lortzeko; eta enpresaren irudiari eta produktuei buruzko material dibulгатiboa, katalogoak eta ikus-entzunezkoa sortzea, gutxienez atzerriko hizkuntza batean.
- b) Sustapen programak: Sustapen-programetan, plan edo programa integral bat prestatu behar da, aurreko paragrafoan aurreikusitako ekintza indibidualen artetik gutxienez sei jarduera burutzeko hiru herrialdetan.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an, diru-laguntzen ildo honetan 66 proiektu onartu dira, hurrengo sektore hauetan: ardogintza eta ardoen ontzea (proiektuen % 62), bestelako industriak (% 26) eta arrantza eraldatzeko industria (% 12).

Enpresek promozioan egindako zuzeneko inbertsioa 1,4 milioi eurokoa da, eta eragindakoa, 1,8 milioitik gorakoa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea : Inbertsio induzitua (milioika)

Aurreikuspena: 2

Emaitza: 1,4

Lagundutako proiektu kopurua

Aurreikuspena: 60

Emaitza: 66





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Fruta eta Barazki Ekoizleen Erakundeak**

## 2.- Araua

30/2010 Dekretua, urtarrilaren 26koa, fruta eta barazki ekoizleen diru-laguntzak erregulatzekoa.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko uztailaren 4koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretua egokitzen baita eta jakitera ematen zenbateko diru-laguntzak emango zaizkien guztira fruta- eta barazki-ekoizleen elkarteei 2018rako.

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2018/ayudas-a-las-organizaciones-de-productores-de-frutas-y-hortalizas-2019/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/ayudas-a-las-organizaciones-de-productores-de-frutas-y-hortalizas-2019/web01-tramite/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Fruten eta barazkien sektoreari buruzko Erkidegoko arauditik deribatutako fruta eta barazki ekoizleentzako diru-laguntzak ematea. Diru-laguntza hauek produktuen promozioarekin lotuta daude.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko ekitaldian, bi enpresak jaso zuten programa honen bidezko diru laguntza, guztira, 372.820 eurokoa, Europako FEAGA funtsak eta EAEko aurrekontuetako funtsak kontuan hartuta. Enpresa hauek EBk onartutako erakundeak errekonozitzeko sistema betetzen dute.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Eskaera kopurua

Aurreikuspena: 2

Emaitza: 2

Lagundutako proiektu kopurua

Aurreikuspena: 2

Emaitza: 2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB Programa**

2.- Araua

227/2014 DEKRETUA, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatu eta aplikatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko abenduaren 4koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, hirugarren herrialdeetan mahastizaintza eta ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programak eta -ekintzak egiteko 2019ko deialdia egiteko dena.

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/ocm-promocion/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/ocm-promocion/web01-tramite/eu/)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB programak Europar Batasunak mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko neurrien bidezko diru-laguntzak ezartzen eta erregulatzen ditu (MAB), hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diru-laguntzaren 2019-2020 FEAGA aplikazioaldian, 32 programa onartu dira, eta guztira 10.209.628 euro eman dira laguntzetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Eskaera kopurua

Aurreikuspena 50

Emaitza: 38

Lagundutako proiektu kopurua

Aurreikuspena 45

Emaitza: 32



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**MAB-Ardoa Inbertsioa 2019 programa**

## 2.- Araua

27/2014 DEKRETUA, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatu eta aplikatzeko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2019ko abenduaren 4koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, hirugarren herrialdeetan mahastizaintza eta ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programak eta -ekintzak egiteko 2019ko deialdia egiteko dena.

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/ocm-inversion/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/ocm-inversion/web01-tramite/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

MAB-Ardoa inbertsioa programak Europar Batasunak mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko neurrien bidezko diru-laguntzak ezartzen eta erregulatzen ditu (MAB), mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko produktuak transformatzeko edo merkaturatzeko jardueretarako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Laguntza eskatzeko 2019-2020 FEAGA ariketan 3 eskaera onartu dira eta 3.454.703 euroko laguntza eman da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Inbertsio induzitua (milioika)

Aurreikuspena: 25

Emaitza: 14,3

Lagundutako proiektu kopurua

Aurreikuspena: 50

Emaitza: 3



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gastrobikain Programa**

## 2.- Araua

Agindua, 2019ko irailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta minimis-araubidean jasotako deialdia egiten baita 2019ko laguntzetarako, Gastrobikain gastronomia-kalitatearen sustapenerako programari dagokionez

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Agindua, 2019ko irailaren 27koa:

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/gastrobikain/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/gastrobikain/web01-tramite/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2019ko Gastrobikain programan aurreikusitako laguntzen helburua gastronomiaren eta elikaduraren sektorean estrategikotzat jotzen diren ekimen gastronomikoei laguntza ekonomikoa ematea da. Horretarako, bi programa desberdin gauzatzen dira: - Negozio gastronomiko berri bat sustatzeko asmoa duten gastronomiako tituludun berri diren gazteei susendutakoa: gastronomiako edo sukaldaritzako edo/eta sukaldaritzako goi-mailako zikloko unibertsitate-graduetan titulazioa duten pertsonen abiarazitako gastronomia-negozioak bultzatzea da helburua, betiere kalitatea identitatearen adierazgarri izango den establezimendu gastronomiko berri bat abian jarriko badute. - Ospe handiko gastronomia-negozioen eszentzia sendotzea, ibilbide eta kalitate aitortuko establezimendu gastronomikoak laguntzeko, sektorearen kalitate-estandarretan eta -akreditazioetan duten aintzatespena hobetzeko, batez ere nazioartean aitortutako gastrono nirearen gidetan eta bikaintasun gastronomikoko rankingetan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an, 11 eskaera onartu dira, 484.701 €, eman dira laguntzetan, guztiak bigarren programakoak, hau da, bikaintasuna sendotzeko programan bideratutakoak.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Inbertsio induzitua (milioika)	2	2,2
Lagundutako proiektu kopurua	8	11



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lehiatu Ardoa Programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko azaroaren 6koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez 2019 ekitaldirako laguntza-deialdia egiten baita (LEHIATU ARDOA Programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperresteka)

AGINDUA, 2019ko azaroaren 6koa:

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/lehiatu-promocion/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/lehiatu-promocion/web01-tramite/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

LEHIATU ARDOA programak enpresa ardogileen kanpo-sustapenerako ekitaldirako laguntza-deialdia egiten du, merkataritza-misio alderantzizkoentzako dirulaguntzen bitartez.

Eskatzaileek 2019ko ekitaldian egindako alderantzizko misioen proposamen bat aurkezten dute, ezein deialditan aurkeztu gabeak izan beharko direnak. Agindu honen xede nagusia da ardogintzaren sektoreko erakundeei laguntzea, zehazki diruz lagun daitezkeen misio horiek bestelako deialdietara aurkeztu ezin izan dituztenei, sektorerara bideratutako laguntzak indartuta, sektoreari ezarri zaizkion zerga berriak direla eta.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019 ekitaldian 3 eskaera onartu dira laguntza-deialdi honetan, ardogintzari eta ardoa ontzeari dagozkionak (proiektuen %100a).

Enpresa hauen zuzeneko gastua, promozioarena, 10.578,08 eurokoa izan da, eta eragindako gastua 15.000,00 eurokoa izan da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Lagundutako proiektu kopurua

Aurreikuspena 5

Emaitza: 3



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Sendotu Programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko azaroaren 19koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira finantza-laguntzak nekazaritza, arrantza, elikagai eta landa-garapeneko sektoreetan maileguak bermatzeko eta finantza-kostuak murrizteko (Sendotu 2019-2020 Programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2019ko azaroaren 19koa:

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/sendotu/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/sendotu/web01-tramite/eu/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Planteatzen diren laguntza-lerroak ondorengo hauek dira:

- a) Finantza-laguntzen lerroa: bermeak emango zaizkie nekazaritza, arrantza, elikagai eta landa-garapenaren sektoreetako ETE kotizatu gabeek aurkeztutako arrisku-finantzaketako hasierako inbertsioen proiektuei.
- b) Finantza-laguntzen lerroa: bermeak emango zaizkie nekazaritza, arrantza, elikagai eta landa-garapenaren sektoreetako enpresek aurkeztutako inbertsio-proiektuei.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019 ekitaldian 5 eskaera onartu dira laguntza-deialdi honetan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Eskaera kopurua

Aurreikuspena: 15

Emaitza: 5 (2019)

Lagundutako proiektu kopurua

Aurreikuspena 10

Emaitza: 0 (2019)



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**«Basque Label Harategiak» marka berrira atxikiko diren harategi tradizionalentzako laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko abenduaren 19ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira «Basque Label Harategiak» marka berrira atxikiko diren harategi tradizionalentzako minimis araubideari atxikitako laguntzen 2019ko ekitaldirako deialdiko oinarriak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, nº 250, 2018ko abenduaren 31a, astehelena

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzaren helburua «Basque Label Harategiak» marka garatzen parte hartzen duten harategi tradizionalak babestea da, eta, horretarako, diruz lagundu nahi dira lokalek eszenatoki berri honetara egokitzeko egin behar izan dituzten inbertsioak.

Harategi tradizionalak bultzatu nahi dira, «Basque Label Harategiak» marka garatu eta harategi tradizionalen irudia eta kontzeptua indartuz, Euskal Autonomia Erkidegoko kalitatezko produktuen alde eta lehen sektorearekin duten konpromisoa balioztatze aldera.

Horretarako, aipatu Aginduan bi laguntza-lerro ezarri dira:

- a) Oinarrizko ekipamenduak eskuratu eta hobetzea, seinaleak egokitzeko (erakustokiak, kartelak, etab.). Ezarritako laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 5.000 eurokoa da.
- b) Ekipamendu osagarriak eraiki, eskuratu eta hobetzeko beste obra txiki batzuk. Ezarritako laguntzaren zenbatekoa egindako inbertsioaren % 50ekoa da. Laguntza gehienez ere 10.000 eurokoa izango da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an, 13 harategi tradizionalak jaso dituzte «Basque Label Harategiak» programa honen laguntzak (1 Araban, 7 Gipuzkoan eta 5Bizkaian).

Programaren hasierako aurreikuspenetan, 30 eta 35 eskari artean babestea eta 500.000,00 €-ko aurrekontua ezartzea planteatu zen.

Emaitzak ikusita, eskari guztiak babestu dira, hau da, 13 harategi, eta guztira 128.784,64 euroko laguntza eman da.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: «Basque Label Harategiak» kanal-marka garatzen parte hartzen duten harategi tradizionalen laguntzea

Aurreikuspena: 30-35

Emaitza \_\_\_\_\_ : 13





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak**

## 2.- Araua

Agindua, 2018ko abenduaren 4ko, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren, nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzeko dena, 2019ko ekitaldirako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, nº 250, 2018ko abenduaren 31a, ostirala

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: nekazaritza ekoizpenaren eta produktuen kalitatea hobetzea.

Produktu horiek elikakatean hobeto sartzen lagunduko da funtsean neurri horren bidez; horretarako, gure ekoizpen-sektorearen eginkizuna sustatu behar da eta, neurri txikiago batean, transformatzailearena, elikakateari balio erantsia eman dakion. Halaber, ziurtatutako eta aitortutako kalitatea duten euskal produktuak hobeto posizionatu behar dira merkatuetan, erkidegokoetan zein kanpokoetan, eta sustatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek eta produktuek parte-hartze handiagoa izan dezaten Euskadiko kalitate bereizi eta ziurtatuaren estrategian. Hori dela-eta, gorago aipatu aginduan laguntza lerro bi ezartzen dira:

M03.1. Nekazariak kalitate-araubidean lehen aldiz parte hartzeko laguntza.

M03.2. Informazio- eta promozio-jardueretarako laguntza (barne-merkatuko ekoizle taldeek ezarritako jarduerak).

Nekazariak lehenengo aldiz elikagaien kalitate-araubideetara eta araubide horietan onartutako produktuak hedatu eta sustatzeko jardueretara sartzen direla bultzatu nahi da laguntza horien bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an, lehenengoz kalitate-araubide batean parte hartu duen onuradun-kopurua 195koa izan da. Hau da, aurreko urteko datuekin alderatuta, % 1,60ko igoera egon da.

Erkidego-merkatuan kalitatezko produktuak hedatu eta sustatzeko jarduerak garatzen dituzten ekoizle-taldeei ematen zaizkien laguntzak aztertzen baditugu, 9 izan dira onuradunak.

Programaren hasierako aurrekontuen aurreikuspenak 978.723,42 € izan ziren  
Aurrekontua gauzatzea 725.287,44 €, izan da, %74,10 suposatzen duelarik.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Nekazariak kalitate-araubidean lehen aldiz parte hartzeko laguntza.	250	195
Informazio- eta promozio-jardueretarako laguntza.	18	9



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hazitek 2019 Programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urtarrilaren 31koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2016ko ekitaldian Enpresen I+G sustatzeko Hazitek programa arautzen eta deitzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2017ko urtarrilaren 31koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Hazitek 2016. Enpresa I+G Bultzatzeko Programa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/03/1701116e.pdf>

AGINDUA, 2018ko abenduaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Hazitek Programa arautzen duen agindua aldatzeko dena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806352e.pdf>

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 18koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita, 2019ko ekitaldirako, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programaren I. fasearen deialdia.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806376e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko abuztuaren 30ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita, 2019ko ekitaldirako, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programaren II. fasearen deialdia.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904115e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Aginduan (Agindu hori 2018ko abenduaren 17ko Aginduaren bidez aldatu zen) aurreikusitako laguntzen 2019ko ekitaldiko onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, enpresen I+G jarduerari laguntzeko Hazitek programa arautzen da.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2000774e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua ikerkuntza industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak burutzen laguntzeko laguntza-programak ematea da. Proiektu horiek izaera lehiakorra nahiz estrategikoa izan dezakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean jasotako espezializazio-esparruetan gauzatzekoak dira.



- Lehiakortasun-proiektuak: Izaera lehiakorreko I+G proiektutzat joko dira ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektu-tipologia hauek:
  - 1) Produktu berriak garatzeko proiektuak.
  - 2) Zientzian eta teknologian oinarritutako enpresa berriak sortzeko proiektuak.
- Proiektu estrategikoak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planeko espezializazio-esparruetan jasotako izaera estrategikoko ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektuak lagunduko dira diruz. Proiektu horiek, teknologia- eta berrikuntza-esparruetako ikerkuntza eta garapenean, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatu beharko dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

	<u>Babestutako proiektuak</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>	<u>Diru-laguntza</u>
Estrategikoak	35	116,4	40,6 Mill. €
Lehiakorrak	782	153,5	37,9 Mill. €
<b>Guztira</b>	<b>817</b>	<b>269,9</b>	<b>78,5 Mill. €</b>

Kontuan izanik 2019ko deialdiak 79,67 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %98,5koa izan da.

Lehiakortasunerako Hazitek programa baliagarria da enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzeko, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoa areagotzeko; halaber, egokia da egungo gizarte dinamiko, konplexu eta globalak unean-unean dituen behar berrieekin eta iraunkortasun-premiarekin zerikusia duten eskari zientifiko-teknologikoei erantzun egokia emateko.

Hazitek programaren ildo estrategikoa baliagarria da lankidetzaren publiko-pribatua garatzeko eta enpresa-partzuergoak sustatzeko, baldin eta ikerketa jarduketaren estrategikoko esparruetan egiten badute, Euskadiko ekonomia sustatzen badute, eta, aldi berean, I+G+b arloko lankidetzaren kultura zabaltzen badute zientzia-, teknologia-, enpresa-sistemako eragile guztien artean.

Gizarte-inpaktua: hazkunde ekonomikoa, enpresen lehiakortasun handiagoak eraginda, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak eskaintzearen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresa eta patente berriak sortzearen ondorioz, horrekin guztiarekin enplegua sortu eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatu nahian.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektu berezien kopurua	5	5
Lagundutako lankidetzako proiektu estrategikoen kopurua	35	30
Lagundutako enpresen kopurua	200	186
Lagundutako lankidetzaz lehiakortasun-proiektuen kopurua	550	616
Enpresen I+Gko unitateekin edo sareko beste agente batzuekin abiarazitako lehiakortasun-proiektuen kopurua	500	583
Produktuen garapenerako proiektu diruz lagunduen kopurua	720	760
Produktuen garapenerako proiektuetan diruz lagundutako enpresen kopurua	675	746
Oinarri teknologikodun enpresa berriak ateratzeko proiektu berri diruz lagunduen kopurua	20	23
OTEBetarako I+Gan lagundutako agenteen kopurua	7	9
OTEBak ateratzeko I+G proiektuetarako lagundutako enpresen kopurua	35	38



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Elkartek 2019 Programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2015eko abenduaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzetarako 2016ko deialdia egin eta laguntzak arautzen dituen (Elkartek Programa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2015eko abenduaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzetarako 2016ko deialdia egin eta laguntzak arautzen dituen (Elkartek Programa).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600110e.pdf>

AGINDUA, 2018ko abenduaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Elkartek Programa arautzen duen agindua aldatzeko dena <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806351e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806351e.pdf>

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 18koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen (Elkartek Programa) 2019ko ekitaldirako I. faserako deialdia.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806377e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 23koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen II. faserako deialdia (Elkartek Programa), 2019ko ekitaldirako

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903648e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Elkartek laguntza-programa arautzen duen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Aginduan araututako laguntzen 2019ko ekitaldiko onuradunen zerrenda. Agindu hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko abenduaren 17ko Aginduak aldatu zuen.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2000773e.pdf>



## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honek ikerketa-proiektu kolaboratiboak babesten ditu, dela oinarritzakoak, dela industrialak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko (Elkartek programa).

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Babestutako proiektuak	Zk.	Aurrekontu onartua	Emandako diru-laguntza
Oinarritzko ikerketa kooperatiboak egiteko proiektuak.	41	31,2 Mill. €	31,2 Mill. €
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak	20	7,6 Mill. €	3,7 Mill. €
Interes bereziko ekintza osagarriak	7	1 Mill. €	0,5 Mill. €
<b>GUZTIRA</b>	<b>68</b>	<b>39,8 Mill. €</b>	<b>35,4 Mill. €</b>

Kontuan izanik 2019ko deialdiak 35,4 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %100ekoa izan da.

Proiektuak bat datoz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planaren espezializazio-esparruekin.

Programa baliagarria da ezagutza lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interes estrategikoa duten garapen teknologikoko esparruetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planean jasotakoetan, alegia.

Gizartean izango duen inpaktua: Ezagutza estrategikoa sortzea garapenerako, enpresen lehiakortasuna sustatzea, enpresa-sektore berriak sortzea etorkizunean.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Arlo estrategikoetan, lankidetzan garatutako oinarritzko ikerketa proiektuen kopurua	30	41
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuen kopurua	35	20
Interes bereziko ekintza osagarrien kopurua	5	7
Lagundutako eragileen kopurua	75	75



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Emaitek Plus Programa (2019ko ekitaldia)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena.

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504223e.pdf>

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/08/1704120e.pdf>

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903681e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko irailaren 11koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Emaitek Plus laguntza-programarako 2019ko ekitaldiko deialdia..

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904320e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Emaitek Plus laguntza-programa arautzen duen 2015eko irailaren 16ko Aginduan araututako laguntzen 2019ko ekitaldiko onuradunen zerrenda. Agindu hori, lehenengo, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko uztailaren 27ko Aginduak aldatu zuen, eta gero, 2019ko uztailaren 18ko Aginduak

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2000772e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Foku Anitzeko Teknologia Zentroen eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroen jarduera ez-ekonomikoari laguntzera bideratutako laguntza publikoak. Hala, finantzaketa esleituko die, jardueraren emaitzen ebaluazioaren eta analisiaren bitartez, maila globalean, Emaitek Plus programaren bidez.





5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontua, guztira: 65,26 milioi euro. Kontuan izanik 2018ko deialdiak 65,26 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %100ekoa izan da.

Hamar teknologia-zentroyen eta lau CIC ikerketa-zentro kooperatiboren jarduera ez-ekonomikoa babestu da; era berean, 21 hobekuntza-ekintza lagundu dira teknologia-zentroyen aginte-koadroa betetzeko, eta 22 hobekuntza-ekintza egin dira CICetako aginte-koadroyen betetzea hobetzeko.

Teknologia zentroyetan, egikaritze mailaren batz-bestekoa %88,9tik (2018an), %89,55ra igo da 2019an; eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroyetan, %79,91etik (2018an), %82,76ra (2019an).

Programa baliagarria da zentro teknologikoei eta laguntzeko, eta finantzaketa esleitzen die haien jardueran maila orokorrean izandako emaitzak ebaluatu eta aztertuta, adierazledun aginte-koadro baten bidez, ekitaldi bakoitzean lortu beharreko helburu batzuekin.

Gizartean izango duen inpaktua: Agenteen ezagutzak hobetzea eta ikerketen emaitzak enpresa alorrera transferitzea; haiek laguntzen baitute enpresen lehiakortasunaren sustapenean eta, baita, beraien garapen ekonomikoan, EAEk garapen jasagarria izan dezan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako Zentroyen kopurua	14	14
Argitalpen zientifikoaren kopurua	1.050	1.188
Eskatu diren patenteen kopurua	85	107
Azken 5 urteotan NEBTSen fakturazioa	7.500 milaka. euro	14.081 milaka euro



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bikaintek 2019 Programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko otsailaren 20koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+Gko proiektuak egiteko laguntzak. Bikaintek programa.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1901098e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 18koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko otsailaren 20ko Aginduak deitutako laguntzen onuradunen zerrenda (Bikaintek 2019 programa).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2001166e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da enpresetan eta ZTBESko eragile jakinetan (ikerkuntza kooperatiboko zentroak, teknologia-zentroak eta enpresatko I+G unitateak) ikerkuntza eta garapena diruz laguntzea. Horrela, ikerlariak kontratatuta, goi-maila teknologikoko taldeak eratuz, beraien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko. Doktore-titulua duten pertsonen kontratazioa, I+G proiektuetan lan egiteko, edota industria-ikerketako proiektu bat egingo duten pertsonen Kontratazioa.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiaren aurrekontu osoa 6.600.000 eurokoa da: 1.600.000 € ordainketa-kreditua 2019ko ekitaldirako, 2.300.000 € 2020ko ekitaldirako, 1.700.000 € 2021eko ekitaldirako eta 1.000.000 € 2022ko ekitaldirako.

Aurkeztu ziren eskaerak 70 izan ziren: 43 doktoreak kontratatzeko lerroan eta 27 doktore-tesi industrialen lerroa. Guztira, 52 ikerlari kontratatu ziren, zeinetatik 25 gizonezkoak izan ziren (48%), eta 27 emakumezkoak (%52).

Aurrekontuaren egikaritzea %49,4koa izan da.

Eragina gizartean: doktoreak kontratatzeko lerroarekin, talentua eta lehiakortasuna igotzen dira enpresetan, industria-ehunean beraien hezkuntzan gaitasun bereziak garatu dituzten pertsonak laneratzen. Bestalde, doktorego-ikasketak enpresetan edo ZTBESko eragile jakinetan egingo dituzten pertsonak kontratatzeko lerroan, talentua atxikitzea eta doktoregoko ikasleak EAeko I+Dko proiektuak



enpresa-ingurumenetan garatzeko baldintzetan jartzea du helburu. Aldi berean, EAEko industria-ehunaren lehiakortasuna eta nazioartekotze-gaitasuna gehietzen laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako doktorego-tesi kopurua	44	22 (9G / 13E)
Kontratatu den doktore kopurua	40	30 (12G / 18E)



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gauzatu Industria programa. Laguntza itzulgarriak oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko apirilaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena; horren bidez 2019ko ekitaldirako laguntza itzulgarriak deitzen eta arautzen dira oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. Gauzatu Industria programa.

AGINDUA, 2019ko irailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez honako agindu hau aldatzen baita: Agindua, 2019ko apirilaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena; horren bidez 2019ko ekitaldirako laguntza itzulgarriak deitzen eta arautzen dira oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. Gauzatu Industria programa.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

2019ko apirilaren 17ko Agindua (EHA 2019/05/03 82 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902076e.pdf>

2019ko irailaren 30eko Agindua (EHA 2019/10/09 192 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904615e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 16koa, Industriako sailburuordearena, Gauzatu Industria Programan jasotako laguntzen 2019ko ekitaldiko onuradunen zerrenda argitaratzeko dena. (EHA 2020/02/10 27zk.):

[https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/res/2020/01/16/\(4\)/dof/eus/html/x59-contfich/eu/](https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/res/2020/01/16/(4)/dof/eus/html/x59-contfich/eu/)

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza itzulgarriak emango zaizkie gutxienez 120.000 euroko inbertsio onartua duten proiektuei eta, aldi berean, gehienez 24 hilabeteen enplegua mantentzen eta/edo sortzen dutenei.

Lagun daitekeen inbertsioaren % 35erainokoak izan daitezke emango diren laguntza itzulgarriak

Laguntza hauek lortu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan inbertsio-proiektuak egiten dituzten ETEek:

- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa txikientzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 35eko laguntza itzulgarriak.
- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa ertainentzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.



- Enpresa berritzaile txikientzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile ertainentzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 25eko laguntza itzulgarriak

Helburua da: Oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena bultzatzea, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa, enplegua sortzen duten inbertsioak babestuz.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

	Enpresa kp	Inbertsioa	Laguntza Itzulgarria	Sortzeko enplegua	Enplegu konprometitua
Emandakoak	57	69.338.286,44	20.051.714,45	320	145
Teknologikoak	12	17.475.226,10	5.712.434,14	91	41
Berritzaileak	45	51.863.060,34	14.339.280,31	229	104

55 enpresa-proiekturi lagundu zaie (aurreikusitako 50 proiektuetatik %110); proiektu horien bidez, 85,02 milioi euro inbertitu dira (aurreikusitako 100 milioietatik %85), eta 752 lanpostu sortu (aurreikusitako 500 lanpostuetatik %150).

Programak oinarri teknologikoko enpresak eta enpresa berritzaileak sustatzen ditu; hortaz, baita garapen teknologikoa eta berrikuntza ere. EAEn dagoen azpiegitura teknologikoa, Teknologiarene Euskal Sarearen bidez, funtsezkoa da era honetako enpresak sortzeko. Era berean, halako elkarrekotasun-harremana sortuko da, ezen oinarri teknologikoko enpresak teknologia-eskatzaille aditu bihurtuko baitira; horrela, egokitu egingo dira eskaintza teknologikoaren zerbitzuak.

Bestalde, enplegua sortzea edo mantentzea bultzatzen du; hori dela eta, eragina du ekonomiaren parametro garrantzitsuetako batean.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	50	57
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	100	69,40
Enpleguak	500	320



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Indartu Programa, 2019ko Agindua-Deialdia**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2019ko apirilaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egingo duten eta, beraz, gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako diru-laguntzen 2018ko ekitaldirako programa. INDARTU 2019 programa.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2019ko apirilaren 17koa (EHAA 2019/04/26 79zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/04/1902033e.shtml>

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 16koa, (EHAA 2020/02/10 27 zk.): 2019ko Onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2000664e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk sustatzeko, ekoizpen-inbertsioak egiten dituzten eta eremu horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako diru-laguntzen programaren nondik norakoak garatu beharra dago. Honako hau da xedea: lurralde-erakunde diskriminazio positiboko ahalegin bat ezartzea - dela krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan duelako, dela garapena eragozten duen egiturazko hondatze-egoeran daudelako-, langabezia-egoera larritasun handienarekin nozitzen ari diren eskualde jakin batzuetara bideratuta.

Laguntza jaso dezakeen inbertsioak agindu honetan aurrez ikusitako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko (itzulgarria ez den % 10ekoa), inbertsioa ezin izango da hasi eskaera aurkezteko data baino lehen, eta data horretatik aurrera egin beharko da, gehienez ere hurrengo bi urte naturaletan, bere ezaugarrien eta enpresa-planen arabera; horrez gain, betekizun hauek bete beharko ditu:

- a) Enpresa handiek, gutxienez, 2.000.000,000 euroko inbertsio onartua egin beharko dute, eta ETEek, gutxienez 500.000,00 euroko inbertsio onartua egin beharko dute. Aurreko paragrafoan adierazitako gutxieneko inbertsio onartura iritsi ez arren, gutxienez 50 lanpostu sortzen badituzte (enpresa handien kasuan) edota gutxienez 15 lanpostu garbi sortzen badituzte (enpresa txiki eta ertainen kasuan).



- b) Enpresaren baliabide propioak, diru-laguntzak kanpoan utzita, gutxienez laguntza jaso dezakeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25 izan beharko dute.
- c) Kontuan hartu beharreko enplegu-sorkuntza zein inbertsioak erakunde juridiko bakarrak egin beharko ditu, eta, enpresa-taldean kasuan, % 100eko akzio-partaidetzarekin, zenbait produkzio-zentro badituzte, arau honetako irizpideak betetzen dituzten eta inbertsioen xede diren produkzio-zentroetan edo produkzio-zentroan baino ez.
- d) Enpresa onuradunek bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa oinarritu beharko dute.

Diru-laguntzek gehieneko muga izango dute; izan ere, ezin izango dira 3.000.000,00 eurotik gorakoak izan enpresako.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

##### 2019ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 41

Eragindako/onartutako inbertsioa: 181.310.744,53 euro

Mantendutako lanpostuak: 2.105 Onartutako lanpostuak: 355

Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena 13.953.260,76 euro.

Bosgarren deialdiak laugarrenaren onarpena areagotu du lagundutako enpresa kopuruari dagokionez, eta baita inbertsioaren intentsitateari eta lanaren mantentzeari dagokionez; horrela egiaztatuta geratu da Europar Batasunak behartsutzat jotako aldeek badutela bidea enpresa-proiektuak erakartzeko, aberastasuna eta enplegua sortuko duten proiektuak, alegia.

##### ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programa honek eragina du parametro makroekonomikoetan, hobetu egiten baititu, batez ere enplegua zuzenean zein zeharka sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oartzualdean eta urteko batez bestekoaren % 20tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	10	41
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	50	181,31
Enpleguak	150	355



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bideratu Berria Programa. 2019ko deialdia**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urriaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Berria programa.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2017ko urriaren 17koa (EHAA 2017/10/2017 203 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/10/1705093e.shtml>

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 15ekoa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez plazaratzen baita krisi-egoeran dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzen 2019ko ekitaldiko deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902096e.shtml>

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 16koa, (EHAA 2020/02/11 28 zk) – Onuradunen 209ko zerrenda-

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2000699e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

BIDERATU BERRIA programaren bidez, neurriak gauzatzea sustatzen da, epe ertain eta luzera bideragarritasuna ezartzeko egindako berregituratze-planen barruan.

Laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira. Onartutako laguntzaren zenbatekoa planeko berregituratze-neurrien kostu osoaren % 50era artekoa izango da, baldin eta laguntzen onuradunak, bere baliabideak erabilita, hein berean laguntzen badu neurriak finantzatzen.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 6

Mantendutako lanpostuak: 596

Onartutako aurrerakin itzulgarriak: 4.300.0000, milioi euro

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programaren helburua da, krisiak jo arren, berriro lehiakorak izateko aukera duten ETEen beharrianak asetzea eta, horrela, berriz bideragarriak izateko indarra eskaintzea.





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<b>Adierazlea</b>	<b>Aurreikuspena</b>	<b>Emaitza</b>
Diruz lagundutako enpresen kopurua	3	6
Enpresek jarritako baliabide propioak (milioi eurotan).	1,5	4,3
Finkatutako lanpostuak.	125	596



#### 1.- Dirulaguntza programaren izenburua

**2019. urtean Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa**

#### 2.- Araua

2019ko uztailaren 24ko AGINDUA, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuarena, Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta horietarako deialdia egiten duena, 2019ko ekitaldirako.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate erabakia (hiperesteka EHAra)

Deialdia 2019ko abuztuaren 9ko EHAAn

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programak inbertsioengatiko dirulaguntzak ematen dizkie Telekomunikazioetako Operadoreei, gune zuri moduan kategorizatutako industrialdeetan dauden enpresei Banda Zabaleko zerbitzuak hornitzeko. Aipatu guneak dira belaunaldi berriko banda zabaleko sarerik ez dutenak eta datozen hiru urteetan horrelakorik izatea aurreikusita ez dutenak, eta soilik horientzat eman ahal izango da dirulaguntza.

Programaren asmoa da Euskadiko 2020ko Agenda Digitaleko 53. egitasmo traktoreari erantzutea, euskal enpresetan banda zabaleko sareen gabezia gainditzeko, merkatuko prezioetan egin ere, eta jarduera ekonomiko industrialeko gune guztietan.

Halaber, belaunaldi berriko banda zabaleko sareak edukitzea funtsezko elementua da Eusko Jaurlaritzak enpresei lotuta dituen beste estrategia batzuen euskarri moduan; esaterako, Espezializazio Adimentsuko Estrategia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana eta 4.0 Industriaren estrategia.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programa hau Proiektu Estrategikoetarako Funtsetatik elikatzen da. Bertan daude bilduta Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek emandako baliabide ekonomikoak. Ekonomiaren Sustapenerako Euskal Kontseiluaren 2015eko abenduaren 22ko bileran (geroago, 2018ko irailaren 11ko bileran zabaldu zen), Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntza programa abiaraztea onartu zen, 11.900.000 euroko zenbateko globalarekin, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari agindu zitzaion programa hori abian jartzeko eta Gobernu Kontseiluari helarazteko, gerora onartu eta baimentzeko.

2019an, industrialde hautagarri guztiak konektibitate premia handiko (300 Mbps) industrialde lote bakar batean bildu ziren (47 industrialdez osatutakoa), eta bideratutako baliabide ekonomikoak 1.976.833,17 eurokoak izan ziren.



Erakunde bakar batek aurkeztu zuen eskaera Aginduaren babesean, eta 2020ko otsailaren 4ko Gobernu Kontseiluak erabaki zuen 418.535,10 euroko laguntza eman zion.

Proiektuak gauzatzeko epea, zehazki, interesdunei erabakiaren berri jakinarazi eta 12 hilabeteko epean amaituko da. Zehazki, 2021eko otsailaren 25ean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Banda zabaleko estaldura izateko laguntza jaso duten industrialdeak	45	47